



ETXALARKO UDALA

Andutzeta, 15 - 2. solairua - 31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tel.: 948-635005 - Fax: 948-635232
e-posta: udala@etxalar.eus - Web: www.etxalar.eus

ETXALARKO IGERILEKUEN FUNTZIONAMENDU LANAK ESLEITZEKO DEIALDIA

(OSTATUA ETA SARRERAK)

2026ko DENBORALDIA

1.- Etxalarko Udalak bi pertsona kontratatu nahi ditu igerilekuen 2026ko denboraldirako, ostatuaz eta sarrerataz arduratzeko.

2.- Izangaiek bete behar dituzten baldintzak hauek dira:

- 16 urte beteak izatea.
- Euskara menperatzea.
- Janari-erabiltzailearen txartela (*Carnet de manipulación de alimentos*) izatea.

3.- Deialdian parte hartzeko eskabideak udaleko bandoan adierazitako epean aurkeztuko dira udal idazkaritzan, agiri hauek erantsirik:

- Curriculumama
- Lan eskarmentua
- Bikoteka aurkezteko dira eskabideak
- Zerbitzua nola emanen den azaltzen duen txostena; baloratuko da ostatuaren inguruan dinamizazioa sustatzeko ekintzak antolatzea (adibidez, mus/partxis partidak/txapelketak, urtebetetzeetako berenduak, etab.) eta ematen diren zerbitzuak zabaltzea (adibidez, pintxoak, bokatak, etab.).
- Erantzunkizunpeko adierazpena (eredua behean)

4.- **Zerbitzuaren hilabeteko lansaria** hau izanen da: **977,03 euro/langile bakoitzeko (soldata garbia) + eguneroko sarreraren % 25 + ostatuko irabaziak** (azken bi kontzeptuak bi langileen artean banatuko dira).

Kontratatuei hileroko ordainsarrietan legezko atxikipenak egingen zaizkie. Gizarte Segurantzako Araubide orokorraren arabera, dagokien kotizazioa ordainduko da.

Esleipendunak **100,00 euroko fidantza** jarriko du kontratua sinatzean; hura bukatzean itzuliko zaio, betiere kontratuak iraun duen bitartean ez bada gora beherarik izan; halaber, kontratua esleitu ondotik, ekainaren 11tik aitzin uko egingen bazaio, fidantza ez da itzuliko.

5.- Lan kontratuaren iraupena:

- **Hasiera: 2026ko ekainaren 19an** (igerilekuak irekiko dira ekainaren 20an).
- **Bukaera: 2026ko abuztuaren 31n** (igerilekuak itxiko dira abuztuaren 30ean).

Esleipendunek EGUTEGIA aurkeztuko dute, bertan argi utziz egun bakoitzean lanean ariko dena edo direnak agertuz.

6.- Egin beharreko lanak hauek dira:

- Instalazioak goizeko 11:00etatik arratsaldeko 20:00ak arte irekiak edukitzea, jai egunak barne.
- Egunero sinatu beharko dute txanda bete dutenek horretarako prestatutako taula.
- Debekatuta dago ostatua eta sarrerako eremuan sartzea kontratatuta ez dagoen inor, eta dagozkion lanak bakarrik kontratatuta diren pertsonen eginez dituzte.
- Instalazioen barneko mantenimendu eta garbiketari dagokionez, ostatuaz arduratzen diren pertsonen **EGUNERO guttienez bi aldiz GARBITU BEHARKO DITUZTE** komunak, aldagelak, etab.

Bertzeak bertze, lan hauek egin beharko dira: igerilekuko ontziak hustu eta garbitu, ostatu ingurua garbitu, mahaiak eta bankuak dauden ingurua garbitu, arketak garbitu, eta, oro har, ongi funtzionatzeko behar den guztia egin.

- Udal igerilekuak ireki aitzinetik kontratatuek instalazioak behar bezala jarri behar dituzte, eta denboraldia bukatutakoan erabiltzeko modu egokian utzi.
- Igerilekuetara sartzeko sarreren kontrola eraman, igerilekuen erabilera-arautegiak dioena kontuan harturik.
- Aldagelen zerbitzuaz arduratzea.
- Tabernako instalazioen kudeaketa. Horretatik sor daitezkeen etekin edo galerak kontratatuen esku izanen dira.

Oro har, eskuz egin behar ez diren produktuak saldu ahal izanen dira (edariak, izozkiak, snack-ak, litxarriak, etab.). Eskuz egitea eskatzen duten bertzelako zerbitzuak eskaintzen badira (pintxoak, ogitartekoak, etab.), esleipendunak elikagaiak manipulatzeko behar den baimena izan beharko du.

- Azaldu beharreko edozein iradokizun edo berrikuntza Udalari jakinaraziko zaio. Udalak, bidezko iruditzen zaion maiztasunarekin, zerbitzua nola ematen den ikuskatuko du.

Aipatutako lanei dagokienez, Udalak edo honen ordezkariak ezartzen dituen jarraibideak beti kontutan hartuko dira.

Elikagaien higienari buruzko neurriak hartuko dira zerbitzua behar den bezala ematearren.

7.- Indarrean den legerian ezarritako kasuez gain, Udalak kontratua desegiten ahal du, bere ustez hitzartutako baldintzak betetzen ez badira edo zerbitzua txarra bada, eta kontratatuek ez dute inolako kalteordainetarako eskubiderik izanen.

8.- Udalak igerilekua erabili ahalko du iruditzen zaion edozein jardueratarako, hala bada.

9.- Baldintza-plegu honek sor dezakeen edozein zalantza Etxalarko Udalak ebatziko du.

9.- Baldintza-plegu honek sor dezakeen edozein zalantza Etxalarko Udalak ebatziko du.

Etxalarren, 2026ko apirilaren 27an.

Jarduneko alkatea,

